

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Pripiat, etorkizunik gabeko hiria

Arrastoak

Akelarre 400 urte eta gero

WWW.PHOTOART.ORG.UA



SURIN VAGYOK

Gizakiak duela ia 25 urte utzi zuen Ukrainako Pripiat hiria. Egun, erradiazioak landaredia bereziki indartu duela diote adituek, zuhaitzak eraikinen barruan hazteraino. Hala ere, egungo argazkietan oraindik eraikin handienak ikus daitezke, baita hiri mamuaren ikur bihurtu den noria ere.

SESB, EGUNGO UKRAINA, 1970. Pripiat ibai bazterrean izen bereko hiria fundatu zuten, Txernobileko V.I. Lenin zentral nuklearreko langileak eta horien senitartekoak bertan bizi zitezten. 10.000 biztanle inguru izango zituen eta Nicolay Ostozhenko arkitektoak Moskun garatutako printzipio triangeluarrean oinarritu ziren horien guztien bizitokia eraikitzeko. Printzipio horri jarraituz, hiriak espazio ireki eta parke asko zituen. Zirkulazio sistema berezia ere bazuen auto pilaketak saihesteko. Langile gehienak Kievetik zetozela jakitun eta hiri hartan arrosondo ugari daudela kontuan hartuta, biztanle bakoitzeko arrosondo bana landatu zuten. Gainera, Pripiatek SESB zaharreko klimarik epel eta atseginenetakoa zuen. Eta, hala, hiria oso azkar hazi zen.

Ezerezetik sortu eta hamasei urtera, 1986ko udaberrian, Pripiatek 49.400 biztanle zituen eta 33.000 arrosondo inguru. Urtero 800 bat haur jaiotzen ziren bertan eta beste 500 pertsona bertara bizitzera joa-

ten ziren, hiri berriaren ongizateak erakarrita.

Lehen hezkuntzako hamabost eskola zeuden eta bigarren hezkuntzako bost. Bi estadio, kultura jauregi bat, zinemak, arte eskola, 35 parke, 167 autobus, 27 taberna eta jatetxe, hamar gimnasio... Hiriak Sobietar Batasunean ezohikoak ziren zerbitzuak eta erosotasuna eskaintzen zituen. Horrek eragin zituen hiriaren hazkunde harrigarria eta sobietar herritarrek eman zioten ezizena: "Etorkizuneko Hiria".

Jolas parke bat ere eraiki zuten, noria eta guzti, baina ez zuten sekula inauguratu. 1986ko apirilaren 26an Txernobileko zentral nuklearreko laugarren erreaktorea lehertu zen eta Hiroshiman jaurtitako bonba nuklearrak baino 400 aldiz erradiazio gehiago igorri zuen.

Pripiateko ia 50.000 biztanleak hurrengo bi egunetan ebakuatu zituzten. Aurten 40 urte beteko zituen hiria adin nagusitasunera ere ez zen iritsi. Etorkizuneko hiriak, ordutik, ez du biztanlerik, ez posta koderik, ez etorkizunik.

AKELARRE: SORGINKERIAREN HISTORIA PIRINIOAN izenburuko jardunaldiak egingo dira azaroaren 4tik 6ra Iruñean eta Zugarramurdin, Logroñoko 1610eko fede autoaren laugarren mendeurrenaren karira.

Eusko Ikaskuntzak, Zugarramurdiko Udalak eta Nafarroako Gobernuak antolatutako hitzaldiak Iruñeko Nafarroako Museoa izango dira hilaren 4an eta 5ean. Egun horietan hainbat adituk sorginkeriak Euskal Herrian XIV. mendetik XVIII.era izan zituen nondik norakoak azalduko dituzte.

Jardunaldiok Gustav Henningsen ikerlaria omenduko dute eta, horrenbestez, azaroaren 6an, Zugarramurdiko Sorginkeriaren Museoan haren lanari buruzko hitzaldiak eskainiko dituzte. Eta jardunaldiak Henningsenek berak itxiko ditu "akelarre" hitzari buruzko solasaldiaren bidez.



FRANCISCO DE GOYA